**Duración:** 30 horas

**Sesiones teórico-prácticas:** los martes 3, 24 de Octubre y 14 de noviembre en **IPES** de 18: 00 a 20:00 horas

**Taller vivencial:** 3, 4 y 5 de noviembre en **Arterra-Bizimodu** Artieda (Navarra)

**Mesa redonda:** el miércoles 22 de Noviembre en la sala Pío Baroja del Instituto Navarro de Administración Pública **(INAP)** de 18:30 a 20:30 (Esta sesión estará abierta a toda la ciudadanía).

**Matrícula:** Gratuita. **Alojamiento y comida en arterra:** con coste; precios a consultar.
Más Información en www.ipesnavarra.org
correo: mujeres@ipesnavarra.org
Tfnos: 948 225 991 y 671 278 493

**Iraupena:** 30 ordu

**Saio teoriko-praktikoak:** urriaren 3an eta 24an eta azaroaren 14an, astearteak, **IPES**en, 18:00etatik 20:00etara

**Bizipen-tailerra:** azaroaren 3an, 4an eta 5ean **Arterra-Bizimodu** (Artieda, (Nafarroa)

**Mahai-ingurua:** azaroaren 22an, asteazkena, Nafarroako Administrazio Publikoare nInstitutuko **(NAPI)** Pío Baroja aretoan, 18:30etik 20:30era (saio irekia herritar guztientzat).

**Matrikula:** Doakoa. **Alojamendua eta otorduak arterran:** ordaindu behar da; kontsultatu prezioak.
Informazio gehiago: www.ipesnavarra.org
e-maila: mujeres@ipesnavarra.org
Tel: 948 225 991 eta 671 278 493

## Donde

### esta formación se desarrollará en tres espacios diferenciados

- Los martes 3, 24 de Octubre y 14 de noviembre en IPES: C/ Descalzos, 72, bajo, Pamplona.
- Los días 3, 4 y 5 de noviembre en Arterra-Bizimodu: C/Abajo, 62, Artieda (Navarra).
- El miércoles, 22 de Noviembre en el Instituto Navarro de Administración Pública (INAP) (Sala Pío Baroja): C/Navarrería, 39, Pamplona. (Esta sesión será abierta a toda la ciudadanía).

## Non

### hiru eremutan garatuko da prestakuntza hori

- Urriaren 3an, urriaren 24an eta azaroaren 14an IPESen: Descalzos kalea 72, behea, Iruña.
- Azaroaren 3, 4 eta 5ean Arterra-Bizimodun: Abajo kalea 62, Artieda (Nafarroa).
- Azaroaren 22an, asteazkena, Nafarroako Administrazio Publikoaren Institutuan (NAPI) (Pío Baroja aretoan): Navarrería kalea 39, Iruña. (Saio irekia herritar guztientzat).

## Mesa redonda abierta a la ciudadanía

22 noviembre: Mesa redonda en el INAP de 18:30 a 20:30 h.
Poder, mujeres y experiencias de liderazgo

### Invitadas

**ALMUDENA HERNANDO:** Profesora Titular de Prehistoria en la Universidad Complutense de Madrid, y miembro del Instituto de Investigaciones Feministas. La construcción de las subjetividades en la modernidad y el poder son ejes que vertebran su trabajo y sus publicaciones. ¿Desean las mujeres el poder? Cinco reflexiones en torno a un deseo conflictivo es una de sus obras más destacadas.
**FATIMA DJARRA SANI:** Es técnica superior en Construcción Civil y en Integración Social. Componente del equipo de Médicos del Mundo-Navarra desarrollando proyectos especialmente en el área de salud sexual y reproductiva y mediación intercultural.
**MARIA DOLORS RENAU:** Psicóloga, escritora y política. Fue diputada y eurodiputada y entre sus publicaciones destacan aquellas relacionadas con las mujeres y poder como la publicada en el año 2009: "La voz pública de las mujeres".
**GENNY CARRARO:** Directora y gestora de la red europea de Ecoaldeas (GEN), y co-fundadora de la Red Europea de Iniciativas Comunitarias sobre Cambio Climático y Sostenibilidad (ECOLISE) y de la Escuela para la Democracia Profunda y de Procesos en Italia. Genny es una mujer que lidera desde la diversidad funcional.

## Mahai-inguru irekia herritarrentzat

Azaroaren 22an: NAPIn, 18:30etik 20:30era. Mahai-ingurua
Boterea, emakumeak eta lidergo-esperientziak

### Gonbidatuak

**ALMUDENA HERNANDO:** Historiaurreko irakasle titularra Madrilgo Complutense Unibertsitatean, eta Ikerketa Feministen Institutuko kidea. Subjektibotasunen eraikuntza modernitatean eta boterea dira haren lan eta argitalpenen ardatza. ¿Desean las mujeres el poder? Cinco reflexiones en torno a un deseo conflictivo da haren lan garrantzitsuenetako bat.
**FATIMA DJARRA SANI:** Goi teknikaria Eraikuntza Zibilean eta Gizarteratze-arloan. Médicos del Mundo-Nafarroako kidea da, eta bereziki sexu- eta ugalketa-osasunaren eta kulturarteko bitartekaritzaren esparruetan garatzen ditu proiektuak.
**MARIA DOLORS RENAU:** Psikologoa, idazlea eta politikaria. Diputatua eta eurodiputatua izandakoa da, eta, haren argitalpenen artean, nabarmentzeko modukoak dira emakumeei eta botereari lotutakoak, esaterako "La voz pública de las mujeres" lana, 2009an argitaratua.
**GENNY CARRARO:** Ekoherrixken Europako Sarearen (GEN) zuzendaria eta kudeatzailea da, baita bi erakunde hauen ko-fundatzailea ere: Klima Aldaketari eta Iraunkortasunari buruzko Ekimenen Europako Sarea (ECOLISE) eta Prozesuetan Oinarritutako Demokrazia Sakonerako Eskola Italian. Genny dibertsitate funtzionala landuz aritzen da lider.

SUBVENCIONA / LAGUNTZEN DU:
Nafarroako Gobernua
Gobierno de Navarra
Instituto Navarro para la Igualdad
Nafarroako Berdintasunerako Institutua

Fundación IPES Fundazioa

c/ Descalzos, 72 bajo
31001 Pamplona / Iruñea
Teléfono: 948 22 59 91
e-mail: mujeres@ipesnavarra.org
rut.iturbide@ipesnavarra.org
www.ipesnavarra.org

# Curso Liderazgos Femeninos

## en contexto de cambios



# Lidergo Femeninoak Ikastaroa

## aldaketen testuinguruan

Fundación IPES Fundazioa

Esta propuesta formativa viene a materializar una de las líneas estratégicas de sensibilización que se plantea IPES reforzar este año: el de LIDERAZGOS FEMENINOS. Además viene a complementar el plan trazado entre IPES y el Instituto Navarro para la Igualdad (INAI) para el programa de Mujeres Creadoras que este año tendrá como hilo conductor esta misma temática.
Con el desarrollo de este proyecto se pretende ofrecer a la ciudadanía de la Comunidad Foral y más concretamente a las mujeres, una exploración e indagación por las experiencias y sentires de las mujeres en el ejercicio del poder, las diferencias de géneros en el liderazgo, las nuevas formas de liderazgo, un recorrido por propuestas que visibilicen y pongan en valor las capacidades y habilidades desarrolladas por las mujeres, en definitiva, una exploración en torno a qué sucede cuando las mujeres asumimos PODER y también cuando no lo hacemos.

Prestakuntza-proposamen honetan, hain zuzen IPESek aurten indartu nahi dituen sentsibilizazio-lerro estrategikoetako bat landuko da: LIDERGO FEMENINOAK. Gainera, IPESen eta Nafarroako Berdintasunerako Institutuaren artean Emakume Sortzaileak programarako prestatutako planaren osagarria ere bada, aurten programa horretan ere gai horixe bera izanen baita ildo nagusia.
Proiektu hau garatzearekin, hona hemen zer eskaini nahi zaie oro har Nafarroako herritarrei eta bereziki emakumeei: emakumeak boterean aritzen direnean sortzen diren esperientzia eta sentipenen gaineko azterketa eta ikerketa bat. Horrela, lidergoan sortzen diren genero-desberdintasunak eta lider aritzeko forma berriak aztertuko dira, eta ibilbide bat eskainiko da emakumeek garatutako gaitasunak eta trebakuntzak ikusarazten eta nabarmentzen dituzten proposamenetan zehar. Azken batean, aztertuko dugu zer gertatzen den emakumeok BOTEREA gureganatzen dugunean, eta, halaber, gureganatzen ez dugunean.

## Metodología

La metodología será teórico-práctica, profundizando en el desarrollo de las habilidades personales, y el cuestionamiento de los mandatos de género que oprimen la expresión de nuestras habilidades para el liderazgo y para el ejercicio del poder. Usaremos diversas dinámicas, compartiendo saberes y experiencias vividas. Confrontaremos prejuicios, juicios, dudas, patrones de opresión.
En esta propuesta formativa tendrá varias modalidades: sesiones teórico-prácticas, taller vivencial y mesa redonda abierta a la ciudadanía con la presencia de Almudena Hernando y mujeres que compartirán experiencias de liderazgos.

## Metodologia

Metodologia teoriko-praktikoa izanen da, eta, horretan, trebetasun pertsonalen arloan sakonduta, zalantzan jarriko ditugu lidergoan eta boterean emakumeok aritzeko ditugun trebetasunen adierazpena zapaltzen duten genero-aginteak. Bizitako jakintzak eta esperientziak partekatzeko dinamikak erabiliko ditugu. Eta aurrez aurre jarriko ditugu hainbat aurreiritzi, iritzi, zalantza eta zapaltze-eredu.
Prestakuntza-proposamen honek modalitate batzuk izanen ditu; saio teoriko-praktikoak, bizipen-tailerra eta mahai-inguru bat; azken horretan sarrera librea izanen da herritar guztientzat, eta Almudena Hernando eta lidergo-esperientzien berri emanen duten emakumeak ariko dira solasean.

# Programa del curso

### 3 Octubre: en IPES de 18 a 20 h.

Liderazgo

- Presentación
- Liderazgo, rango y poder. Conceptos básicos.
- Diferencias de Género en los liderazgos.
- Resistencia y resiliencia de lo femenino. El Feminismo.

### 24 Octubre: en IPES de 18 a 20 h.

Marcos de referencia en torno al ejercicio del poder. El patriarcado y sus herramientas de dominación.

- Puntos de impacto del poder.
- Anclajes internos: “el patriarcado que habita en mi”
- Herramientas para liberar barreras.

### Del 3 al 5 noviembre: en ARTERRA BIZIMODU (Artieda, Navarra). Desde las 17 h. Del viernes por la tarde hasta las 19:30 h. Del domingo. Taller vivencial

Liderazgo femenino; habitando el propio poder

- Empoderamiento individual y colectivo
- Barreras personales y sociales para la expresión del talento y potencial de las mujeres.

Participación e impacto social

- Habilidades de liderazgo; recrear los roles.
- Empoderamiento colectivo: abordar el desafío de compartir el poder.
- Liderazgos inclusivos, colaborativos, su impacto e influencia en la comunidad.

Habitar el poder

- Gobernar la propia vida.
- Cuidado y poder, de la oposición a la integración.
- La líder que puedo ser, la líder que quiero ser, la líder que elijo ser.
- Procesos de cambio y transformación.
- Creación colectiva y de spedida.

### 14 Noviembre: en IPES de 18:00 a 20:00 h.

Cierre y conclusiones

- Anclaje de nuevos conceptos.
- Evaluación.

### Imparte el curso

MAUGE CAÑADA: Psicóloga y terapeuta. Facilitadora y experta en gestión de conflictos y Género. Colaboradora y miembro del Departamento de Estudios de la Mujer de IPES, y formadora, en temas de psicología relacional, grupos y género. Coordinadora exterior de la Red Ibérica de Ecoaldeas y Co-fundadora del proyecto Ecoaldeano: Arterra-Bizimodu.

# Ikastaroaren programa

### Urriaren 3an: IPESen, 18:00etatik 20:00etara

Lidergoa.

- Aurkezpena
- Lidergoa, maila eta boterea. Oinarrizko kontzeptuak.
- Genero-desberdintasunak lidergoetan.
- Femeninoaren erresistentzia eta erresilientzia. Feminismoa.

### Urriaren 24an: IPESen, 18:00etatik 20:00etara

Erreferentzia-esparruak boterearen erabileraren inguruan. Patriarkatua eta hark erabiltzen dituen menderatze-tresnak.

- Boterearen joguneak.
- Barne-ainguratzeak: “niregan bizi den patriarkatua”.
- Oztopoak askatzeko tresnak.

### Azaroaren 3tik 5era ARTERRA BIZIMODUN (Artieda, Nafarroa). Ostiral arratsaldeko 17:00etan hasi eta igandeko 19:30ak arte. Bizipen-tailerra

Lidergo femeninoa; botere propioa bizitzen

- Ahalduntze indibiduala eta kolektiboa.
- Oztopo pertsonalak eta sozialak emakumeen talentuaren eta potentzialaren adierazpenean.

Parte-hartze eta eragin soziala

- Lidergo-trebetasunak; rolak birsortzea.
- Ahalduntze kolektiboa: boterea partekatzeko erronkari heltzea.
- Lidergo inklusiboak eta elkarlanean oinarritutakoak; haien inpaktua eta eragina komunitatean.

Boterean bizitzea

- Nork bere bizitza gobernatzea.
- Zainketa eta boterea, oposiziotik integraziora.
- Izan naitekeen liderra, izan nahi dudan liderra, nolako liderra izatea aukeratzen dudan.
- Aldaketa- eta eraldaketa-prozesuak.
- Sortze kolektiboa eta agurra.

### Azaroaren 14an: IPESen, 18:00etatik 20:00etara

Itxiera eta ondorioak

- Kontzeptu berrien ainguraketa.
- Ebaluazioa.

### Ikastaroa ematen du

MAUGE CAÑADA: Psikologoa eta terapeuta. Erraztailea eta aditua gatazken kudeaketan eta genero-arazoetan. IPES Elkarteko Emakumearen ikerketarako saileko kolaboratzailea eta kidea, eta hezitzailea harremanen psikologiaren, taldeen eta generoaren gaietan. Red Ibérica de Ecoaldeas sareko kanpo-koordinatzailea eta Arterra-Bizimodu ekoherrixkaren proiektuaren ko-fundatzailea.